


**ASKI DA!-REN EKITALDIA.** Bilguneak Espainiako Konstituzioa omendu zuen Bilbon, haren 25. urtemuga ospatzeko



LUIS TEJIDO / EFE

Emilio Guebara, atzoko ekitaldiko protagonistetako bat, atzean Jose Ramon Rekalde eta Antonio Basagoiti dituela.

## GREGORIO PECES BARBA

Espainiako ministro ohia

«Konstituzioari gaur hemen omenaldia eginez, haren bertuteak goza ez ditzaketen pertsonak omentzen ari gara»

la egotzi zioten «abertzaletasun demokratikoari», eta askatasunari «prezio politikoa» ezarri diotela salatu. Askatasuna berreskuratzeko borroka «irabazten» ari direla esan ondoren, Francis Mendiluze eta Pilar Elias ETaren biktimen senideek Eusko Jaurilaritzaren aurka jo zuten, «biktimen aurrean nahiago dutelako beste aldera begiratu, eta Batasunari keinu egin begiarekin». Presoen zigorraren gogortzearen alde ere egin zuten, EAJ, EA eta EB-IUk gai honen inguruan agertutako jarrerara salatu.

Bideo emanaldiak eta hitzaldiak txalo zaparradek baino ez zituzten eteten. Lantzean behin, baina, «Ibarretxe non dago?» galdetzen zuen ahots bat nagusitzen zen kiroldengan. Bere izena aipatu gabe, Peces Barba ere EAEko lehendakaria ibili zuen buruan ohartarazi zionean Konstituziotik eta ordenamendu juridikotik at «abentura bila dabilena tentuz ibil dadila». Honen ildotik, Tomas Tueros militante komunista historikoa eta Aski Da! bilguneko jarraitzaileak Casilla betetzen zutenen barruko pentsa- mendua plazaratu zuen esan zuenean Konstituzioak «kontzesio» gehiegi egin zizkiola abertzaletasunari. Txalo artean, «Gorbeia gurutzera negar egiten igo beharrean, abertzaletasuna Everestearaino igo da», esan zuen.

EAKo kide Kosme Luzarragaren eskutik etorri zen ekitaldiko alde bitxiaren. Abertzalea dela aitortu ondoren, Luzarragak PP eta PSEko hautetsien «askatasun ezak» min egiten diola esan zuen, «baina mingarriagoa egiten zait alderdi abertzaleok Jaurilaritzan gaudelarik hori gertatzea».

Humberto Unzueta | **BILBO**

Aski Da! bilguneak Bilboko Casilla kiroldegia lepo bete zuen atzo iluntzean Espainiako Konstituzioari gorazarre egiteko, bere 25. urtemugaren karterara. Konstituzioa askatasun eta eskubide «iturri oparoa» dela nabarmendu zuten behin eta berriro, eta haren babes «irmoa» aldarrikatu zuten gatazka bere onera joan dadin. Konstituzioaren aldeko omenaldia ez ezik, ekitaldia biktimen aldeko ekimen bihurtu zen.

Alderdi popularreko eta sozialistako ordezkariak zabal eta garrantzitsua bildu zuen ekitaldiak. Michavila eta Acebes Justizia eta Barne ministroak ez eze, Jaime Mayor Oreja, Carlos Iturgaitz, Ramon Rabanera, Leopoldo Barreda eta Javier Zarzalejos Espainiako eta EAEko goi karguak eraman zituen PPk Bilboraino. Sozialisten lerrotik ere, burukide ugari bat egin zuten ekimenarekin, besteak beste, Jose Blanco, Patxi Lo-

# PPk eta PSOEk biktimen aldeko ekitaldia bihurtu dute Konstituzioaren omenaldia

Biktimen egoeraren «errua» alderdi abertzaleei egotzi diete

pez, Mario Onaindia, Jesus Eiguren, Rosa Diez eta Nicolas Redondo. Manu Montero EHUKo errektorea ere Casillan izan zen.

Bi ordu eskas iraun zuen ekitaldian zehar, Konstituzioaren hainbat artikulua aletu zituzten atzo aurkezle lanetan jardun zuten Jose Mari Calleja kazetariak eta Elvira Lindo idazleak. Bizitzeko eskubidea eta adierazpen, pentsamendu eta katedrarako askatasunari buruzko Espainiako itunak egiten dizkion pasarteak aipamenak egin zituzten, hala ahozgoran nola bideoan.

Ekitaldian dozena bat pertsonak hartu zuten hitza, gehienak ETaren biktimak edo biktimen ahaideak. Gregorio Peces Barba ministro ohi sozialista eta Gabriel Cisneros alderdi popularreko kide historikoak izan ziren aurrenak hitz egiten.

## Konstituzioaren «dohainak»

Biek ala biek Konstituzioaren gurasoak diren aldetik hitz egin zuten eta haren dohainak azpimarratu zituzten, batik bat «hura agertu arte deus ez ginenak, hiritar egin gintuelako». Askatasun eta eskubide emailer joritzat jo zuen 1977an hitzar-

tutako ituna. Peces Barbaren hitzetan, «Konstituzioari gaur hemen omenaldia eginez, haren bertuteak goza ez ditzaketen pertsonak omentzen ari gara».

Izan ere, biktimak izan ziren atzoko protagonista nagusiak, bai hizlarien aipamenetan, bai hitza hartu zutenen artean, gehienek izaera hori zutelako.

Konstituzioari «begirunerik» ez diotelako eta biktimen egoeraren «errudun» direlako, hizlariak alderdi abertzaleen aurkako mezu ugari luzatu zituzten. ETaren atentatu, mehatxu eta jazarpena «baliatzen» dute-

**UDAL**

**2003 OTSAILA/EKAINA IKASTAROA MATRIKULA ZABALIK**

EUSKALDUNTZE maila guztiak, HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK, EGA

MATRIKULATZEKO EPEA Urtarrilaren 20tik otsailaren 5era

BULEGOKO ORDUTEGIA 10:30 - 13:30 y 16:30 - 20:00

Urdanibia plaza, 5  
Tel.: 943 620 262  
e-mail: euskaltegi@irun.org

**EUSKARAZ ONGI IKASTEKO**

**ERREKTOREGOA**  
**RECTORADO**

**[Arduraldi partzialeko eta osoko irakasle lagunen kontratuak adjudikatzeko lehiaketa publikoa]**

Honen bidez publiko egiten da, guztiak jakin dezaten, joan den 2003ko urtarrilaren 15ean Euskal Autonomi Elkarteak prentsan argitaratu zen lehiaketarako gurako onartu eta ez onartuen behinbehineko zerrendak Lehiaketa-Ataleko eta Campusetako Errektoreordetzetako iragarki-tauletan azaltzen direla.

Leioan, 2003ko urtarrilaren 23an.  
Irakasleen Errektoreordea,  
Victor Urrutia Abaigar.

**Osakidetza**  
Servicio vasco de salud

**EPE**

**ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA 2002**

Osakidetza deitutako hautaketa-prozesuen barruan, urtarrilaren 30ean eta otsailaren 1, 8 eta 15ean, Vitoria-Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolan (Jose Atxotegi kalea, z/g-Vitoria-Gasteiz), ondorengo kategoria hautetako probak egingo dira:

| DATA     | ORDUA | KATEGORIA                         | LEKUA                             |
|----------|-------|-----------------------------------|-----------------------------------|
| 03-01-30 | 16.00 | BFE MICROBIOLOGIA Y PARASITOLOGIA | Erizaintzako Unibertsitate Eskola |
| 03-02-01 | 12.00 | BFE ANALISI KLINIKOAK             | Erizaintzako Unibertsitate Eskola |
| 03-02-08 | 12.00 | BIOKIMIKA KLINIKOA (1. ariketa)   | Erizaintzako Unibertsitate Eskola |
| 03-02-15 | 12.00 | BIOKIMIKA KLINIKOA (2. ariketa)   | Erizaintzako Unibertsitate Eskola |

**Ikasgelak noiz irekiko diren:** probaren hasiera ordua baino 15 minutu lehenago.

**Ikasgelak noiz itxiko diren:** aurreikusitako orduan, eta proba hasi ondoren ezin izango da inor sartu. Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzako Hautaketa Zerbitzura jo dezakezu telefono hauen bidez:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150

**www.osakidetza-svs.org**